

# Asisko gutuna

2023ko apirila

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

174. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Esker ona bizitzaren jakinduriaren adierazpena da, kortesia hutsa baino askoz gehiago, gure lorpenetatik haratago. Horrek gizatiar egiten gaitu eta pertsona hobek. Beste pertsona batzuei irekita bizi garela adierazten du, eman ez eta jasoz.

## Gogoetarako gaia

### *Esker on apala*

Beti esan izan da ona dela esker onekoak izatea, eta hala da. Esker onkoa izateak, eskerrak ematen jakiteak, pertsoneri eta bizitzari eskerrak emateak hainbeste on jaso dugulako, bihotza zabaltzen digu eta handitu egiten gaitu. Baina bada guztiaren oinarrian dagoen esker on mota bat: esker on apala.

Denok dugu bizitzan gauza bikainak jaso izanaren esperientzia, eta horiek ez dira gure ahaleginaren fruitu hutsa. Eta hala izanda ere, nolabaiteko oinarritzko desproporzioa aurkitzen dugu guk jarritako ahaleginaren eta bizitzan jasotakoaren artean. Horrela, eskertuta gaude gure trebetasunengatik, bizitzak eta pertsonak eskaini dizkiguten aukerengatik, jasotako maitasunagatik, guran jarritako konfiantzagatik, etab. Bihotzez eskertzen ditugun gauzak dira. Asko eskertzen dugu bizitzan kokatzen lagundu digun guztia: maitasun bat, gaitasun bat, lorpen bat, aukera bat.

Hala ere, bada beste esker on mota bat, aurreko guztia onartu ondoren, txiki eta pobre sentitzen garenean ere ematen dena. Bizi dudan guztia aurretik dagoen norbaitek eutsita dagoela ohar-tzen naizenean gertatzen da. Ez da lorpen baten, edo gaitasun baten, edo fortunaz eskuraturutako emaitza. Esker on horrek existentzia osoa merezimendurik gabe eta pozez jasotzen dela adierazten du; bizitzak eta bere gauzak bizitzea merezi duela alegia, baita behin baino gehiagotan enbarazu eta gauza itsusien artean bada ere. Bat txikia dela jakinik, guztia baino lehenagotik eta ondoren maitatua dela sentitzen denaren esker on umila da. Kontraesana dirudi, baina behartsu eta meriturik gabea izanik ere dohainik maitatua izateak, nire bizitza nigandik harago dagoen norbaitengan oinarritua egotera eramaten nau. Frantziskok bizi izan zuen esker ona da: “Goresten zaitut, Jauna...”

## Bibliako pasarteak: Lk 1,46-53

Orduan, Mariak esan zuen: «Jaunaren handitasuna dut goresten, pozaren pozez daukat barrena, Jainkoa baitut salbatzaile. Bere mirabe ezerez honengan jarri ditu begiak; horregatik, dohatsu deituko naute guztiek gaurdanik. Gauza handiak egin ditu nire alde Ahalguztidunak. Santua da eta gizaldiz gizaldi errukitsua begirune diotenentzat. Bere indar guztiaz jokatu du: buru-harroak suntsitu ditu, ahaltzuak goi-postuetatik bota eta ezerezak gora jaso; ondasunez bete ditu gose zeudenak, eta esku-hutsik bidali aberatsak.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Eta gu guztiok, errukarri eta bekatariorik, ez baikara zu aipatzeko duin, arren erregutzen dugu, Jesu Kristo gure Jaunak, atsegin izan zenuen zeure Seme maiteak, guztiagatik eskerrak eman diezazkizula Espiritu Santu Laguntzailearekin batera, zeuri eta berari atsegin zaizuen bezala: bera aski baituzu beti edozertarako eta beraren bitartez hainbat mesede egin baitzenigun. Aleluia!

Eta ama ospetsu eta beti Birjina Maria txit dohatsuari, Mikel, Gabriel eta Rafael dohatsuei eta espiritu dohatsuen talde guztiei: serafin, kerubin, ahalmen, nagusi, aginte, botere, indar, aingeru eta goiaingeruei; Joan Bataiatzaile, Joan Ebanjelari, Pedro eta Paulo dohatsuei eta patriarka, profeta, haur erru-ale apostolu, ebanjelari, ikasle, martiri, aitorle eta birjina dohatsuei; eta izan ziren eta izango diren eta diren santu guztiei zure amodioagatik apalki eta arren eskatzen diegu, gauza hauengatik zeuk atsegin duzun bezala eskerrak eman diezazkizutela zuri, Jainko goren egiazko, betiko eta bizi horri, zeure Seme kutun Jesu Kristo gure Jaunarekin eta Espiritu Santu Laguntzailearekin, gizaldi eta gizaldietan. Amen. Aleluia!. (1Er 23,5-6)

## Otoitza

Eskerrak ematen dizkizut, Jauna, bihotz-bihotzez,  
beste jainkoen  
aurrean zu kantuz ospatzen.  
Zure tenplu santura begira ahuspezten naiz,  
zuri eskerrak emanez:  
zeure maitasun eta leialtasunaz,  
paregabe handi egin dituzu zeure izena eta promesa.  
Dei egin nizunean, entzun egin zenidan,  
bihotzean kemena bizkortu.

Arriskuz inguraturik aurkitzean,  
babestu nire bizia etsai amorratuengandik,  
luzatu eskua eta salba nazazu.  
Dena egingo du Jaunak nire alde.  
Jauna, zure maitasuna betikoa!  
Ez utzi bertan behera hasi duzun lana.

138. (137) Salmoa

Eskerrak emango dizkizute, Jauna, munduko errege guztiek,  
zure promesaren berri jakitean.  
Zure nagusigoa dela eta, kantatuko dute:  
«Handia da Jaunaren ospea!»  
Bai, gorena da Jauna,  
baina apalari arretaz dio begiratzen;  
harroari, berriz, urrutitik igartzen.

## Gutuneko azken hitzak

“Esker ona da pertsona on baten atal nagusia.” Francisco de Quevedo

### 2023ko apirileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

|                     |                 |                  |                |                |
|---------------------|-----------------|------------------|----------------|----------------|
| 1 Jn 11,45-57       | 7 Jn 18,1-19,42 | 13 Lk 24,35-48   | 19 Jn 3,16-21  | 25 Mk 16,15-20 |
| 2 Mt 27, 11-54      | 8 Mt 28,1-10    | 14 Jn 21, 1-14   | 20 Jn 3, 31-36 | 26 Mt 5,13-16  |
| 3 Jn 12,1-11        | 9 Jn 20, 1-9    | 15 Mk 16, 9-15   | 21 Jn 6,1-15   | 27 Jn 6,44-51  |
| 4 Jn 13,21-33.36-38 | 10 Mt 28,8-15   | 16 Jn 20, 19-31  | 22 Jn 6,16-21  | 28 Jn 6,52-5   |
| 5 Mt 26, 14-25      | 11 Jn 20,11-18  | 17 Jn 3, 1-8     | 23 Lk 24,13-35 | 29 Mt 11,25-30 |
| 6 Jn 13, 1-15       | 12 Lk 24,13-35  | 18 Jn 3,5a.7b-15 | 24 Lk 24,13-35 | 30 Jn 10,1-10  |

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Apirileko otoitza hilaren  
27an izango da.